

LIPDUB LEHIAKETAREN OINARRIAK

1.- Edozein taldek edo koadrilak hartu ahal izango du parte: ikasle taldeek, kirol taldeek, koadrilek, kultur taldeek...

2.- Parte hartzeko talde bakoitzak nahi adina LIPDUB aurkeztu ahal izango ditu eta edozein abesti erabili ahal izango da horretarako.

3.- Bidaltzeko bi modu egongo dira:

Internet bidez bideoa igotzea,
www.eitb.com/gaztea atarian sartuta.

DVD-a ondorengo helbidea bidaltzea
(formatu posibleak .AVI, .MPEG,...):

LIPDUB lehiaketa
Gaztea
Miramon pasealekua 172
20014 Donostia (Gipuzkoa)

DVDa bidaltzen dutenek hainbat datu gaineratu beharko dute: bideoaren izenburua, taldearen izena, herria, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa. Internet bidez igotzen dituztenek formulario batean eman beharko dituzte datu horiek.

4.- Epaimahai independente batek jasotako LIPDUB guztien artean aurre-aukeraketa bat egingo du eta hainbat bideo aukeratuko ditu.

5.- Aukeratutako bideo horien artean botaketa bat egingo da www.eitb.com/gaztea atarian. Botaketa horrek bi fase izango ditu:

Azaroaren 8tik 22ra: Lehenengo botaketa egingo da

Azaroaren 23tik 30era: Boto gehien dituzten bost LIPDUBak finalera pasako dira eta horien arteko botaketa izango da. Azaroaren 23an boto guztiak 0an jarriko dira, berriz botaketa hasteko.

6.- Horrez gainera, gustuko bideoaren alde botoa emateko beste modu bat izango da: www.eitb.com/gaztea atarian bideoa osorik ikustea. Izango dituen 10 ikustaldiko boto bat gehiago izango du bideo bakoitzak. Ikustaldiak Nielsen etxeak egiten duen audientzia txostenetik hartuko dira.

7.- Abenduaren 1ean "dida!" saioan emango da jakitera bigarren fasean boto gehien zein LIPDUBek eskuratu duen. Irabazleak 3.000 euroko saria izango du.

8.- Gaztearen LIPDUB lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar. EITBk eskubidea izango du jasoko diren bideoak Interneten eskegitzeko edota irratian eta telebistan emititzeko.

9.- Gazteak bere esku izango du elementu iraingarriak dauzkaten bideoak lehiaketatik kanpo uzteko aukera.

10.- Gazteak oinarri hauek aldatzeko eskubidea izango du eta hala eginez gero, behar bezala jakinarazi beharko ditu.